



# Mañaria

---

# alkarregaz

---

**Hiri-antolamendurako Plan Orokorraren  
Parte-hartze Prozesua**

Plan de Participación  
del Plan General de Ordenación Urbana

## **MAÑARIA ALKARREGAZ**

Goiko hori dugu Plan Orokorra aurrera eraman ahal izateko lema eta ez da kasualitatez eta polito gelditu dadin aukeratua izan. Gaur egun Mañariko Udaleko ordezkari guztiok bat gatoz honetan eta Mañaria alkarregaz eraiki behar dugun ustea daukagu.

Eta zergatik parte hartu behar duzu zuk honetan?

Mañaria eraikitzeko oso lanabez garrantzitsua da Plan Orokorra eta lehenengoz egingo da mañariarren parte hartzearen bitartez. Plan honek hamarkada bat barru izan nahi dugun Mañaria diseinatzen du eta diseinu horretan herritar ahalik eta gehienek parte hartu behar dute. Berdin da gure adina, sexua edo ogibidea, Mañarian bizi garenok gure herriaz badakigu, denok dugu zer esana herriaren etorkizunaz eta denok ezagutzen ditugu, bakoitzak bere ikuspuntutik, badaki zeintzuk diren Mañarik dituen gabeziak eta alde indartsuak.

Aurreko Plan orokorra 2002koa da eta orduko egoera ekonomiko eta sozialak ez zuen zerikusirik gaur egungoarekin. Hau dela eta zahartuta gelditu dela esan daiteke eta herri honek etorkizuna izatea nahi badugu, plan orokorra eguneratu behar dugu. Egia da, egoera ekonomikoa ez dela onena, baina garrantzitsua da nolako herria nahi dugun diseinatuta izatea, bidea zein den jakiteko eta haruntza joateko.

Plan orokorraren bidez, natura babesteko eremuak zeintzuk diren, industriaguneak, aisialdirako guneak, beharrezkoak diren ekipamenduak, eta non kokatu erabakitzen da. Hau guztia interes partikularrak bakoitzaren etxean utziz eta interes orokorra defendituz mañariarrontzako.

Etorkizuneko Mañariko gure seme-alaba eta ilobek non jolastu eta ikasiko duten erabaki behar dugu. Gazteek behar dituzten ekipamenduak zeintzuk diren erabaki eta mapan kokatu behar ditugu. Gaur egungo nerabeak etorkizunean Mañarin bizitzen gera ahal izateko, etxebizitzak non, zenbat eta zein eredutakoak izan behar diren diseinatzeko momentua da. Gurasoek eta sasoioek beraien bizimodua erraztuko dien Mañaria zein den

eztabaidatu behar dugu. Adineko pertsonak behar dituzten serbitzuak eta ekipamenduak zeintzuk diren erabaki eta kokatu behar dugu.

Honen guztiaren helburua Mañaria erakargarri, eroso eta herri bizia eraikitzea da. Orain da momentua gure iritziak emateko eta beste pertsona batzuek izan ditzaketenak entzuteko. Orain da Mañariren etorkizuna diseinatzeko momentua eta zu ezin zara prozesu honetatik kanpo gelditu. ETOR ZAITEZ ETA PARTE HARTU!!